



PEOI BALIOANITZEN LAN POLTSA HANDIAGOTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien xedea Garbitania Zero Zabor S.M. peoi balioanitzen aukeratze prozesua arautzea da, sortu dakioken behin-behineko, aldi baterako beharrak asetzeko egun indarrean dagoen lan-poltsa handiagotuko delarik eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da. Kasu horretan kontuan hartu beharko da enpresak, legeak ezarrita, bete behar duen %2ko erreserba pertsona desgaituei dagokionez.

Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Peoi balioanitzen urteko ordainkizun gordina 30.401,65 € izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Hautaketa prozesua gainditzen duten izangaiek indarrean dagoen lan-poltsa handiagotuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan-poltsa erabili ahal izango da Garbitania Zero Zabor S.M.k izan litzakeen aldi baterako lan premiak betetzeko, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansaiola Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitania Zero Zabor S.M.k urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

Deialdi honen xede den lanpostuaren funtzioa ondorengoa da: Garbitaniak zerbitzua eskaintzen duen udalerrietan, hondakin bilketa zein kale garbiketarako, kategoriari dagozkion lanak egitea eta bete beharreko EGINKIZUNAK, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Erabilera publikoa duten eremuak garbitzea, kale garbiketarako tresneriarekin: Errepideak, espaloiak, kaleak, plazak, pasa-bideak.
2. Kale garbiketa egitea, haizagailuarekin.
3. Kale garbiketa zerbitzuan bildutako hondakinak jasotzea eta sailkatzea.
4. Berdeguneetatik hondakinak jasotzea eta sailkatzea.
5. Esekitori, edukiontzi eta zakarrontzi inguruak garbitzea.
6. Zakarrontziak hustutzea eta poltsak aldatzea.
7. Hustubideak, kanaletak eta saretak garbitzea.
8. Zuhaitz-txorakoak garbitzea.



9. Asteroko azoka eta aste barruan saltzeko jartzen diren postuen eremua garbitzea.
10. Ekitaldiak, jaiak edo merkatu txikiak egin ondoren eremua garbitzea.
11. Kartelak eta pintadak kentzea.
12. Larrialdietan (elurteak, izozteak, uholdeak, haizeteak, istripuak) laguntza ematea: elurra kendu, gatza bota.
13. Presio handiko ekipoarekin garbiketa-lanak egitea.
14. Sakabanatutako ontziak esekitokitara eramatea.
15. Belar-sastrakak garbitzea.
16. Jailetako lan bereziak egitea.
17. Araudia betez, Garbitaniaren ardura diren hildako animaliak kentzea.
18. Laneko ibilgailuak eta tresneria, garbitzea, mantentzea eta zaintzea.
19. Herriaren garbiketa-egoeraren ardura hartzea, egunero agindutako eremua/ibilbidea garbitzeaz arduratzea.
20. Atez ateko bilketa zerbitzua eskaintzen duen Udalerrietan hondakinen atez ateko bilketa lanak egitea.
21. Atez ateko zerbitzuaren ohiko garbiketa eta mantentze-lanez arduratzea, edota bere arduradunari berri ematea.
22. Larrialdi eta ekarpen guneetako bilketa eta garbiketa.
23. Intzidentziak eta sortutako hondakinen ordainketak kontrolatzeko sistemen aplikazio eta jarraipena egitea.
24. Ontzien eta posteen garbiketa eta hautsitako kirtenen ordezkapena Garbitaniak horrela erabakitzean.
25. Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, hierarkia mailan dagoenak hala aginduz gero.

3.- BALDINTZAK

3.1 Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaez erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea.
- b) Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila izatea.
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura edo emantzipatuta bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak



izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.
- e) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- f) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzurik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.
- h) 1. hizkuntza eskakizunari dagokion ahozko euskara maila, derrigorrezkoa.
- i) B gida baimena edo baliokide baten jabe izatea eta gidatzeko gaitasuna izatea.
- j) Hala badagokio, %33 edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen dion ziurtagiria.

3.2 BALDINTZA HORIEK GUZTIAK ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA AMAITZEN DEN EGUNERAKO BETE BEHAR DIRA ETA BALDINTZA HORIEK MANTENDU BEHAR DIRA PROZESU GUZTIAN ZEHAR.

3.3 Lanpostuari dagozkion beste zehaztasunak

- a) Udalhitzeko hitzarmenaren aplikazioa.
- b) Dagokion Udalhitzeko maila: 8
- c) Dagokion Udalhitzeko taldea: LT
- c) Osagarri espezifikoa: arriskutasuna, toxizitatea e.a.engatik %5eko jardunaldiaren murrizketa

4.- ESKABIDEAK

Izangaiek 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela eta, hala badagokio, merituetan baloratzen dena adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkezten den eskabidean. (I. eranskina).

Eskaera horiek Garbitania Zero Zabor S.M.ko hautaketa batzordeari zuzenduko zaizkio.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezen:



a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiria edo baliokidearen kopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren kopia.
- Curriculum Vitaea.
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiriaren kopia.
- Bizitza laboralaren txostena.
- Gidatzeko baimenaren kopia.
- Lehiaketaldian puntuagarri izan daitekeen merezimenduak kontuan hartzea nahi izanez gero, guztien zerrenda aurkeztu beharko da, oinarri hauen I. eranskinean jasotako ereduak erabiliz, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti. Dokumentu horiek, jatorrizkoak edo fotokopia izan beharko dira. Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik.

Lan esperientziari dagokionez, enpresa agirian argi adierazi beharko da alegatzen den lana puntuagarri den esperientzia motakoa dela.

- Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute azterketen faseko ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

ALEGATZEN DIREN MERITUAK EGIAZTATZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK PARTE-HARTZEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTUOKO DIRA DEIALDIAN EZARRITAKO EPEAN. BERANDUAGO AURKEZTEN DIRENAK EZ DIRA BALORATUKO.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopiak aurkeztu behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, eskaerak eta profilen egokitasuna aztertuko da.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidera izango dira bidaliak:

- **Garbitania Zero Zabor S.M.ren bulegoetan** (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, Hernani, 20120) aurkeztu ahal izango dira, 9:00etatik 14:00etara.
- Horrez gain, eskabideak **postetxean** aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura erkidearen



39/2015 legeak dion bezala, hurrengo helbidera: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina. 20120 (Hernani).

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko. Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

Horretarako azken eguna, 2025eko otsailaren 24a izango da.

6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

6.1 Osaketa

Epaimahai kalifikatzaileak Garbitania Zero Zabor S.M.ren Administrazio Kontseiluak izendatutako izango dira, zehazki ondorengoak:

- Gorka Berasategi Lezana (Epaimahaiburua) Ordezkoa: Eneritz Gurrutxaga Gogortza
- Andoni Labaka Vicente (Epaimahaikidea) Ordezkoa: Xabier Arruti Ustoa
- Aritz Aranguena Arruti (Epaimahaikideak) Ordezkoa: Xabier Etxarri Balerdi
- Jon Kortajarena Rubio (Epaimahaikidea) Ordezkoa: Ania Ibarguren Kintana.
- Nora Etxaniz Ruiz (Idazkaria) Ordezkoa: Agurtzane Arrillaga Aldalur

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Eginiko froga guztien edukia eta emaitzak baloratzea
- Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitzea
- Administrazio Kontseiluari kontratatu beharreko hautagaiak proposatzea

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkoak izango dituzte; ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak - titularrak zein ordezkoak – baino gehiago ez badaude.



Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, epaimahaiburuaren ordezkio bere ordezkioak jardungo du eta, ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkioa, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak erabateko independentziarekin, diskrezionaltasun teknikoarekin eta objetibotasunarekin jardungo du, eta organo eskudunak haren izendapen-proposamenak bete beharko ditu. Era berean, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

Komunikaziorako eta bestelako gora beheretarako, haxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Garbitania Zero Zabor S.M., Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, 20120 Hernani.

6.2 Aholkulariak:

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, epaimahaiak egokiak irizten dion probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.3 Jarduketa prozedura:

- a) Hautaketa batzordeak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- b) Hautaketa batzordeak froga bakoitza baloratzeko irizpideak alde aurretik erabakiko ditu. Irizpide horiek zehatzak eta argiak izango dira erabat eta puntuaketa egin duten pertsonak zorrotz aplikatuko beharko dituzte.
- c) Hautaketa batzordeak proposaturiko izangaiekin zerrenda osatuko da, deialdi honen objektua den behin-behineko beharrak betetzeko.
- d) Izangai batek ere gaintutako ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiek hautatzeko prozedura honakoa izango da. Hautaketa prozedurak fase bi izango ditu: oposizio aldia eta lehiaketa aldia. Oposizio aldian 60 puntu emango dira gehienez, eta lehiaketa adian 40 puntu. Guztira 100 puntu.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.



Garbitania Zero Zabor S.M.k ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak -baita ezinbesteko arrazoientatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

1. Oposizioaldia (Gehienez 60 puntu)

- **Lehen ariketa. Froga teorikoa. (Gehienez 30 puntu)**
 - o Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
 - o Lehen ariketa erantzun aukera anitzeko test galdetegia izango da, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Galderak oinarri hauen II. eranskineko gai-zerrendari buruzkoak izango dira, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera.
 - o Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea, hau da gutxienez 15 puntu.
 - o Ariketa honetan aztergai izango den materialaren gai zerrenda II. eranskinean jasotzen dena izango da.
 - o Oker erantzundako galderak ez dira "kenkari" gisa konputatuko.

Atal honetan 30 puntu jaso ahal izango dira gehienez.
- **Bigarren ariketa. Praktikoa. (Gehienez 30 puntu)**
 - o Hautaketa batzordeak jartzen dituen ariketa praktikoa gainditu beharko dituzte hautagaiek. Ariketa horiek lotura izango dute deialdiko gai zerrendako gaiekin edo/eta funtzioekin.
 - o Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea.

Atal honetan 30 puntu jaso ahal izango dira gehienez.
- **Hirugarren ariketa: Euskarazko froga.**
 - o Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
 - o Izangaien euskara maila neurtzeko dagokion azterketa egingo da.
 - o Deialdian parte hartzeko baldintzetan eskatzen den euskara maila dutela egiaztatu beharko dute.
 - o Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gainditzen ez dutenak hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira. Froga honek barne eraginak izango ditu eta Garbitania Zero Zabor S.M.k ez du inongo ziurtagirik luzatuko.



- Ez dute froga hau egin beharrik izango, parte-hartzeko eskaerarekin batera, deialdian ezarritako epean ziurtatzen dutenak 1. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak jasotakoaren arabera.

2. Lehiaketaldia (Gehenez 40 puntu)

Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da 1. fasea gainditu duten izangaiekin.

Atal honetan, Epaimahaiak, ondorengo merituenak balioztatuko ditu, aurrez adieraziak eta egiaztatutako izan badira:

Lan esperientzia: (gehenez 40 puntu)

- Lan esperientziatik gehenez ere 40 puntu emango dira. Lan eginiko hilabete bakoitzeko puntu bat emango da.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 1. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Administrazio publikoak edo enpresak emandako ziurtagirien bidez frogatu beharko da eskarmentua.

Puntuagarriak izango diren esperientzia arloak honakoak izango dira:

- Kale-garbiketan edo atez ateko bilketan peoi eginkizunetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) puntu 1 emango da.

Lehiaketa bigarren fase honetan 40 puntu jaso ahal izango dira gehenez.

8.- HAUTAKETA-PROZESUA HASTEKO EGUNA ETA HURRENGOAK

Oposaketako ariketak non, noiz eta zein ordutan egingo diren Garbitania Zero Zabor S.M.ko web orrian argitaratuko dira (<http://www.garbitania.eus>).

Oposizioegileak deialdi bakarrean deituko dira. Azterketara deitua izan baina aurkezten ez diren oposizioegileak ariketa horretan parte-hartzeko eta hautaketa prozeduran aurrera jarraitzeko eskubidea galduko dute. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean agertzen direnei.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzen jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena...).



Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertuko du, entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

9.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Garbitania Zero Zabor S.M.k, hurrengo hamabost egunen barruan, akordioa egingo du onartutakoen eta baztertuta utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Akordio hori Garbitania Zero Zabor S.M.k honako web orrian argitaratuko da: **www.garbitania.eus**.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin-betikotzat joko da inolako erreklamaziorik jarriko ez balitz. Egon balego, behin-betiko zerrenda onartuko duen akordio berri batean onartu edo baztertuko dira, adierazitako moduan argira emango dena.

Epaimahai kalifikatzaileak, ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, hautaketa prozedura gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du. Ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioaren aurka egiteko 5 laneguneko epea emango da eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin-betikoa izango da automatikoki.

Behin-betiko zerrenda, behin-behineko zerrenda argitaratutako era eta modu berean argitaratuko da.

Probak egiten diren datan oraindik ez bada egindako erreklamazioa ebatzi, eragindako pertsonak azterketa egiteko aukera izango dute, baina azterketak ez du baliorik izango erreklamazioa ezesten bada.

Lan poltsa honen kudeaketa Garbitania Zero Zabor S.M.k barne arauen arabera burutuko da.

10.- KALIFIKAZIOAK

Puntuaketa guztira oposizioaldian eta lehiaketaldian ateratakoen batura izango da eta behin-betiko hurrenkera erabakiko du. Kalifikazioa jendaurrean jarriko da **www.garbitania.eus** web orrian.

Berdinketa izanez gero, ordena ezarriko da, irizpide hauei jarraituz:

- a) Lanpostu horrek duen kidegoan, eskalan edo mailan emakumeen ordezkariak %40 baino txikiagoa denean lehentasuna emango zaio emakumeari, baldin eta beste izangaiaren egoerak neurria ez aplikatzea justifikatzen duenean, esate baterako, enpleguan sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
- b) Hautaketa prozesuan ariketa praktikoan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde



- c) Hautaketa prozesuan ariketa teorikoan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- d) Hautaketa prozesuan meritu gehien alegatu dituenaren alde.

11.-EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Azken emaitzak erreklamatzeko epea bukatu eta gero, Garbitaniak hautaketa gainditu duten izangaiekin lan arriskuen prebentzio eta segurtasunaren inguruko formakuntza ikastaro antolatuko du. Parte hartzera derrigortuak egongo dira izangai guztiak. Ikastarora bertaratzen ez den hautagaiak, Garbitanian formakuntza saio berri bat antolatu artean ezin izango du Garbitaniarekin kontraturik izenpetu.

Epaimahai kalifikatzaileak, hautaketa gainditu eta prebentzio eta segurtasun arloko formazioa jaso duten izangaiekin puntuazioaren arabera lan poltsaren handiagotze prozesu honetan parte hartu duten hautagaien hurrenkeraren proposamena egingo dio Garbitaniako Administrazio Kontseiluari, bertan behin-betikoz onartuko direlarik.

12.- KONTRATAZIOA

Hautagaiak bi egun baliodunetan gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua egiteko beharrezkoak diren bestelako dokumentazioak aurkeztu beharko dituzte, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontaktzen hasita.

13.- LAN-POLTSA

Lan-poltsa handiagotuko da hautaketa prozesuaren fase guztiak gainditzen dituzten hautagaiekin eta berauek indarrean dagoen lan-poltsaren hautagaien atzetik sartuko dira, zero puntuazioarekin, prozesu honetatik eratorritako hurrenkeran. Lan-poltsaren gehieneko indarraldiaren epea jatorrizko lan poltsak duen iraupena izango du. Lan-poltsaren esparruan ematen diren kontratazioei Garbitaniako lan-poltsen kudeaketa arauak aplikatuko zaizkie.

50 langiletik gorako enpresentzat legeak ezartzen duen desgaituen aldeko erreserba dela eta, lanpostu finko bat estaltzeko beharra sortzen den unean enpresak aipatu obligazioa betetzen ez badu, lan-poltsa osatzen duten hautagaien artean desgaitasun aitortua duen lehenengoari egingo zaio eskaintza.

14.- GORABEHERAK

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, oinarrietan jaso gabeko guztiaren inguruan sor daitezkeen zalantza eta gora beherak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

15.- DATU PERTSONALEN BABESA

Garbitania Zero Zabor S.M.k, sektore publikoko erakundea den heinean, datu pertsonalak tratatzen ditu hautaketa prozesuen kudeaketarako eta prozesu horietatik eratorritzen diren lan-poltsen eraketarako. Datuen tratamendurako legitimazio edo lege-



oinarria Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua ezarritako aurre kontratu harremana da.

Datuak hirugarren bati edo beste erakunde batzuei laga ahal izango dira lege-obligazioak betetzeko beharrezko denean, eta Administrazio Publikoari beraien behin-behineko pertsonal beharrak betetzeko, betiere hautagaiak horretarako baimena eman duenean, Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) y 6.1.a) artikuluek ezarritakoa jarraiki.

Datuak ez dira nazioarteko transferentzien objektu izango eta hautaketa prozesuak eta eratorritako lan-poltsen indarraldia irauten duen bitartean gordeko dira edo hautagaiak aurka egin edo tratamenduari ezezkoa adierazten duenera arte.

Interesdunek eskubidea izango dute eragiten dizkieten datu pertsonalak tratatzen duenaren konfirmazioa Garbitaniatik jasotzeko, datuetan sartzeko eta zehaztugabeak direnean datuak zuzentzeko; horrez gain eta halakorik balego, beste arrazoi batzuen artean, interesdunek datuak jasoak izan ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean, datuen tratamendu mugatzea eskatzeko eta emandako baimena ezeztatzeko eskubidea dute. Horrek ez du eraginik izango ezezkoaren aurretik egindako tratamenduaren legitimazioan.

Interesdunek beraien eskubideak erabil ditzakete dp@garbitania.eus helbidera emaila zuzenduz eta postaz, ondorengo helbidean: Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, 20120 Hernani, Gipuzkoa. Horrez gain Datuen Babeserako Agentzia eskudunari erreklamazioa aurkeztuta, batez ere, eskubideak www.garbitania.eus-en adierazitako helbide elektronikoan eta/edo posta-helbidean erabili eta eskatutako lortu ez duenean.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA

Probetan erabili nahi den hizkuntza:

EUSKARA GAZTELERA

SARRERA ERREJISTROA	GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.KO PEOI BALIOANITZEN LAN-POLTSA

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak					
NAN zkia:		Jaioteguna:		Telefonoa:	
Helbidea:				Helbide elektronikoa:	
Herria:		Posta kodea:			
%33ko elbarritasuna edo handiagoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu).					

IKASKETAK

--



EUSKARA

Euskara maila egiaztatzen duen titulua (edukiz gero)

1HE/PL 1 2HE/PL 2 3HE/PL 3 4HE/PL EGA
Besterik / Otros

MERITUAK

LAN ESPERIENTZIA

ADMINISTRAZIOA/ENPRESA	LANPOSTUA	HASIERA	AMAIERA

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiriaren edo baliokidearen kopia
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren kopia.
- Curriculum Vitaea.
- Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiriren kopia.
- Hala badagokio, alegatutako merituen agirien originala edo fotokopia.
- Bizitza laboralaren txostena.
- B Gidatzeko baimena.



Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea **ESKATZEN DU, eta BAIEZTATZEN DU:**

- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzeko gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez duela.
- 3) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez duela, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- 4) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arduraduna: GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. **Helburua:** Lan-poltsen eraketarako hautaketa prozesuen kudeaketa. **Eskubideak eta informazio gehigarria:** Datuen tratamenduarekin lotutako eskubideak erabili ahal izango dira eta tratamenduari buruz informazio gehigarria lortu www.garbitania.eus web guneko "Pribatutasun atalean" "langileen hautaketa eta lan-poltsak" pribatutasun politikan.

O Nire datuak beste Administrazio Publikoei komunikatzea baimentzen dut pertsonalaren behin-behineko beharrak betetzeko.

Data _____

SINADURA



II. ERANSKINA

Gaitegia:

1. Gaia. Kale garbiketa: sistemak, zerbitzu motak, makineria eta tresnak eta garbiketa produktuak
2. Gaia. Garbitaniari buruz www.garbitania.eus web orrian dagoen informazioa.
3. Gaia. Kale izendegia:
 - Usurbilgo kale izendegia:
<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/eu/direktorio-geografikoa/udalerria/usurbil>
 - Hernaniko kale izendegia:
<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/eu/direktorio-geografikoa/udalerria/hernani>
 - Astigarragako poligonoen izendegia:
<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/eu/direktorio-geografikoa/udalerria/astigarraga>
4. Gaia. Hernaniko "Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza arautzaile"ko ondorengo artikulua:
 - 1. artikulua
 - 3. artikulua
 - 6. artikulua
 - 8. artikulua
 - 9. artikulua
 - 10. artikulua
 - 11. artikulua
 - 12. artikulua
 - 15. artikulua
 - 24. artikulua
 - 25. artikulua
 - 26. artikulua
 - 27. artikulua
 - 28. artikulua
 - 30. artikulua
 - 31. artikulua
 - 32. artikulua
 - 33. artikulua
 - 35. artikulua
 - 36. artikulua
 - 38. artikulua
 - 41. artikulua
5. Gaia. Hondakin frakzioen bereizketa.
6. Gaia. 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako, 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 artikulua.
7. Gaia. 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.



8. Gaia. 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, zama eskuz kargatzeagatik arriskuan izan daitezkeen langileen osasunaren eta segurtasunaren (batez ere, bizkarrean eta gerraldean) arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.